

2023KO MARTXOKO KANPAINARAKO ORIENTABIDEAK

> **Zaindu, eskutik heldu**
Cultiva cuidados

*"Pozik ikusten dot gertuko
gauzetan jarduten
dozuen, kimuak zainduz
eta, aldi berean, zuhaiztia
babestuz"*

Frantzisko Alta Santua

*"Veo con alegría que
trabajáis en lo cercano,
cuidando los brotes y a la
vez, protegiendo la
arboleda"*

Papa Francisco

Eta guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak...

“Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak”- Gn 1,31

Jainkoaren ametsa, gozamenerako eskaintzen zaigun paradisuari zehaztuta. Gizakia, zaintzaren bidez, eskutik helduta, betetasunera eraman beharreko kreaio baliotsu baten parte gisa.

Baina... ez dirudi Jainkoaren ametsa egia bihurtzen ari garenik.

Nagusikeriatik natura zaintzera

Metaketaren gizarteak, gauzak edukitze hutsean oinarrituak, kamustu egin digu bizitzaren berezko zentzuaz ohartzeko gaitasuna, eta nagusikeriazko harreman bihurtu dugu naturarekin dugun harremana. Naturak dirudi gure premiak asetzeko soilik sortua, mugarik gabeko biltegi bat balitz bezala.

«Hazi gara pentsatuz ginela naturaren jaun eta jabe eta baimena genuela hura espoliatzeko» (Laudato Si, 2 – Frantzisko Aita Santua).

Pobrezia, berdintasun eza, gizarte bazterketa, ingurumen arazo larriak areagotzen ari dira, bizitzaren beraren iraunkortasunerako funtsezko ardatza zaintza dela ahantzi duen bizi estilo baten ondorioz.

Errotik eraldatzea: bere buruari eusteko ere gaietz den sistema ekonomiko bat

Lurraren aldarria da pobreen aldarria bera. **“Ez dira bi krisi bereizi, ingurumenekoa bata eta gizartekoa bestea: gizarte eta ingurumen krisi bakar bat dago, oso konplexua” (LS 139),** jatorri bera dute biek.

Ekonomia antolatzeko dugun modua zauri eta arrasto sakona uzten ari da Guztion Etxean, gure planetan, gure gizartean. Arrasto horietako batzuk larriak dira, eta litekeena da konponezinak izatea. Horiek erakusten dute, halaber, gizarte bazterketa eta berdintasunik eza bereizgarri dituen errealitate bat, zeinetan uzten ari baitzaio pertsonen eta herrien oinarritzko eskubideak bermatzeari.

Txikitasunetik, egunerokotik, sakonetik sarea iruteko gonbita.

“Pozik ikusten dot gertuko gauzetan jarduten dozuena, kimuak zainduz eta, aldi berean, zuhaitzia babestuz”, aitortzen digu Frantzisko Aita Santuak.

Egunerokotasunean aldaketa txiki baina esanguratsuak egin ditzakegu gure bizi eta kontsumo estiloan, pixkanaka eragin dezaketenak, legamia balira bezala, ekonomia eraldaketa.

«Bizi estiloak aldatzeak presio onuragarria egin lezake botere politikoa, ekonomikoa eta soziala dutenengan» (LS, 206).

Hartu itzazu zure bizitza sozialean, pertsonalean eta familiarterkoan eguneroko keinu eta portaeretan aldaketa txikiak egiteko lagungarri gertatuko zaizkizun erabakiak.

Zaintza lantzea, hurbilekoak eta urrunekoak zaintzea, pobrezia aurre egiteko konpromisoa hartzea, gure barnetasuna eta bizitzaren zentzua zaintzea, inguratzen gaituen mundua zaintzea, zaintzea... horixe da gaur egiten dugun proposamena, zentzuaren eta alaitasunaren iturria gisa.



ZER EGIN DEZAKET NIK?

Izan bizi estilo xumea

- Ohartu zure gastuez.
- Bereizi zer den benetan behar duzuna eta zer nahi duzuna.
- Erakutsi posible dela bizitza sinplea eta duina izatea.

Behatu errealitateari hurbiletik

- Bizi adi eta gertatzen denaren jakitun.
- Jarri izena bidean topatzen dituzun pertsonen.
- Ireki bihotza, zugana jotzen duena aditzeko, artatzeko eta osatzeko.

Hartu besteekin partekatzeko denbora

- Eskaini kalitatezko denbora familiari eta lagunei.
- Eskertu eta partekatu zure dohainak eta ondasunak premia gehien dutenekin.
- Partekatu zure alaitasuna, lagundu hurbilekoen mina eta tristura.

Bilatu koherentzia zure bizitza pertsonalean, hartzen dituzun erabakien bidez

- Kontsumitu arduraz (Kidendaren moduko ekimenak babestuz).
- Sustatu enplegu duina (soldata duina ordainduz, enpresa sozialen eta gizarteratze enpresen zerbitzuak kontratatuz).
- Kontsumitu produktu ekologikoak (bultzatu ekoizpen ekologikoa; Biozaki, esaterako).
- Murriztu zure energia-kontsumoa
- Birziklatu eta berrerabili arropa (izan Kooperera proiektuaren parte).

Sakondu LSH Laudato SI helburuen proposamenetan

Materialak eta ekimenen proposamenak:

<https://www.caritasbi.org/calendario-2022-cultiva-cuidados/>



Egin otoitz bizitzaren Jainkoari, maite baitzaitu biziki eta zaintzen samurki.

Jainko ahalguztiduna, unibertso osoan presente zaudena eta zure kultura txikienetan ere bai.

Zuk, zure samurtasunez existitzen den guztia inguratzen duen horrek,

isuri guregan zure maitasunaren indarra, bizia eta edertasuna zain ditzagun.

Busti gaitzazu bakeaz, anai-arreben moduan bizi gaitzen inori kalterik egin gabe.

Pobreen Jainko, lagun iezaguzu erreskatatzen mundu honetako abandonatuak eta ahaztuak. hainbeste balio baitute zure begietan.

Sendatu gure biziak, munduaren babesleak izan gaitzen eta ez depredatzaileak, edertasuna erein dezagun eta ez kutsadura eta suntsiketa.

Ukitu etekinaren bila baino ez dabilzanen bihotzak, pobreen eta lurraren kontura ibili ere.

Erakutsi iezaguzu gauza bakoitzaren balioa deskubritzen, liluraturik kontenplatzen, onartzen sakonki baturik gaudela kultura guztiekin argi infiniturako gure bidean.

Eskerrak egunero gurekin zaudelako. Hats emaguzu, mesedez, gure borrokan, justiziaren, maitasunaren eta bakearen aldeko borrokan.

Frantzisko Aita Santua

Haurrekin era honetako garizuman sakondu nahi izanez gero, www.bizkeliza.org webgunean eskuragarri duzu "Jesusen dadao" dinamika.